Azpeitiko Udala

**MARIA OLATZ EIZAGUIRRE ORBEGOZO, AZPEITIKO UDALEKO IDAZKARIAK.**

**ZIURTATZEN DUT:** Udalbatzak bi mila eta hogeita lauko uztailaren bian egindako bilkuran, honako AKORDIOA hartu zuela:

**AZPEITIKO UDALAREN VII. PLANGINTZALDIRAKO ERABILERA PLANA: EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA 2023-2027.**

Azpeitiko Udalaren VII. Plangintzaldirako erabilera plana onartzeari dagokionez:
Legezko oinarria:

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak udalei aitortzen die, eskumen propio gisa, izendatuta dauzkaten arloetako zerbitzu eta jardueretan euskararen erabilera sustatzeko eta euskararen normalizazio planifikatzeko eskumena.

Bestalde, azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuak, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoak, legea garatzen du, bi xederekin:

-Euskararen eta gaztelaniaren erabilera instituzional eta administratiboak arautzea Euskadiko toki entitateetan, eta,

-Herritarrei hizkuntza-eskubideak bermatzea toki-administrazioekiko harremanetan.

Udalaren hizkuntza-politika islatzeko tresnen artean, **hizkuntza normalizatzeko planak** ezarri ditu.

Azpeitiko Udalak UEMAren laguntzarekin 2023-2027 epealdirako "Azpeitiko Udalean Euskararen Erabilera normalizatzeko Plan Estrategikoa 2003-2027" dokumentua osatu du.

Euskal sektore publikoko erakundeek euskararen erabilera kudeatzeko eta jarraipena egiteko VII. Plangintzaldian osatu da dagokigun Plan Estrategikoa, eta Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren aldeko txostena du (2024ko ekainaren 3an egindako txostena).

Planak jaso dituen erronkak kudeaketan eta erabileran izango dira:

Kudeaketari dagokionez,
-Udalaren kudeaketa orokorrean txertatutako kudeaketa-egitura antolatzea.
-Plan Estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideei jarraipen sistematikoa egitea.
-Hizkuntza irizpideak ezagutarazi eta betearaztea
-Arduradun politikoen eta langileen lidergoa sustatzea

Erabilerari dagokionez
-Hizkuntza irizpideak ezagutarazi eta betearaztea
-Euskara izatea sortze-, lan- eta zerbitzu hizkuntza.

SINA5e72b8ad-db78-450a-90da-0a75875c54a1

Azpeitiko Udala

Erronka horiek betetzeari begira, Azpeitiko udalak kudeaketa zein erabilerari dagozkien arlo bakoitzean hainbat helburu estrategiko zehatu eta bere plan estrategikoan, bai eta, segimendua egiteko adierazleak ere. Guztira, 35 adierazle jako dira, HPS-k derrigorrezkotzat jotako 14 adierazle eta UEMArekin adostutako beste 24. Planak jaso dituen erronka eta helburuak ezartzeko KEMEM markoa garatzeko metodologia erabili du.

Udalburuak hitza hartu eta Batzorde berriemailean planaren edukia aztertzeko aukera izan dela adierazi du.

Bere aldetik Hegoa Larzabal Vaqueriza zinegotziak proposatu du eguneroko bizimoduan euskara erabiltzeko plan bat ere izan beharko zuela, egoera sozio-linguistikoa hobetzeko plana, hain zuzen, eta ez bakarrik erakunde publikorako.

Euskara alorreko zinegotziak, Aitor Larrañaga Larrañagak horretarako beste plan bat egin ohi dela argitu du, baina hau legeak agindu bezala udal-administrazioan euskara normalizatzeko dela.

Eta kontuan izanik aldekoa dela euskera alorreko batzorde berriemaileak emandako irizpena, Udalbatza Osoak aho batez hartutako aldeko botuarekin ONARTU DU:

Euskal sektore publikoko erakundeek euskararen erabielera kudeatzeko eta jarripena egiteko PSK VII. Plangintzaldian Azpeitiko Udalean euskararen erabilera normalizatzeko Plan Estrategikoa onartzea.

Hartutako akordioaren berri Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzari jakinaraziko zaio, eta modu berean, Plana bera Udalaren web orrian argitaratuko da eta udal langile guztiei jakinaraziko zaie, dagokion formazio irizpideak zehaztuz. Euskara alorreko zerbitzuaren gain izango da eginkizun hau.

Eta horrela jasoa gera dadin eta, alkate udalburuaren oniritziarekin ziurtagiri hau eman dut, Azpeitian, bi mila eta hogeita lauko irailaren hogeita bostean.

O.E.
ALKATEA,

SINA5e72b8ad-db78-450a-90da-0a75875c54a1

Azpeitiko Udala

**Para que así conste, se hace saber que el siguiente texto es una traducción del original, redactado en euskera (Decreto 179/2019, de 19 de noviembre, sobre normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las instituciones locales de Euskadi).**

**MARIA OLATZ EIZAGUIRRE ORBEGOZO, SECRETARIA DEL AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA.**

**CERTIFICO:** Que el Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el día dos de julio de dos mil veinticuatro adoptó el siguiente ACUERDO:

**PLAN DE USO DEL EUSKERA PARA EL VII PERIODO DE PLANIFICACIÓN DEL AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA: PLAN ESTRATÉGICO DE NORMALIZACIÓN DEL USO DEL EUSKERA 2023-2027.**

En relación con la aprobación del plan de uso del euskera para el VII Periodo de Planificación del Ayuntamiento de Azpeitia:

Fundamento legal:

La Ley 2/2016, de Instituciones Locales de Euskadi, reconoce a los ayuntamientos, como competencia propia, la de promover el uso del euskera en los servicios y actividades de las materias que tengan atribuidas y planificar su normalización.

Por su parte, el Decreto 179/2019, de 19 de noviembre, de normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las instituciones locales de Euskadi, desarrolla la ley con una doble finalidad:

-Regular los usos institucionales y administrativos del euskera y del castellano en las entidades locales de Euskadi y,

-Garantizar los derechos lingüísticos de los ciudadanos en sus relaciones con las administraciones locales.

Entre las herramientas para reflejar la política lingüística del Ayuntamiento, ha establecido los **planes de normalización lingüística.**

El Ayuntamiento de Azpeitia en colaboración con UEMA ha elaborado el documento "Plan Estratégico de Normalización del Uso del Euskera en el Ayuntamiento de Azpeitia 2003-2027" para el periodo 2023-2027.

El Plan Estratégico que nos ocupa ha sido elaborado en el VII Periodo de Planificación para la gestión y seguimiento del uso del euskera por parte de las entidades del sector público vasco y cuenta con el informe favorable de la Dirección de Normalización Lingüística de las Administraciones Públicas del Gobierno Vasco (Informe emitido el 3 de junio de 2024).

Los objetivos que plantea el Plan serán en la gestión y en el uso:

En cuanto a la gestión,
- Organización de la estructura de gestión integrada en la gestión general del Ayuntamiento.
- Seguimiento sistemático de los Planes Estratégicos, Planes de gestión y criterios lingüísticos.

SINA5e72b8ad-db78-450a-90da-0a75875c54a1

- Dar a conocer y hacer cumplir los criterios lingüísticos
- Fomentar el liderazgo de los responsables políticos y del personal del ayuntamiento.

Respecto al uso
- Dar a conocer y hacer cumplir los criterios lingüísticos
- Que el euskera sea la lengua de producción, trabajo y servicio.

Para el cumplimiento de estos retos, el Ayuntamiento de Azpeitia concretará en su Plan Estratégico una serie de objetivos estratégicos en cada área de gestión y uso, así como indicadores de seguimiento. Se recogerán un total de 35 indicadores, 14 indicadores considerados obligatorios por la Viceconsejería de Política Lingüística y otros 24 consensuados con UEMA. Se ha utilizado la metodología para el desarrollo de KEMEN (Marco de Gestión y Uso para la Normalización del Euskera) para establecer los retos y objetivos del Plan.

El Presidente de la corporación toma la palabra para señalar que en la Comisión informativa se ha podido analizar el contenido del Plan.

Por su parte, la concejala, Hegoa Larzabal Vaqueriza, propone que el Ayuntamiento debería contar también con un plan de uso del euskera en la vida cotidiana, para mejorar la situación socio-lingüística, y no sólo para la institución pública.

El Concejal del área de euskera, Aitor Larrañaga Larrañaga, aclara que para ello se suele elaborar otro plan por parte del ayuntamiento, pero que éste es para la normalización del euskera en la administración municipal, tal y como exige la ley.

Y teniendo en cuenta que es favorable el dictamen emitido por la Comisión informativa en materia de euskera, el Pleno de la Corporación por unanimidad APRUEBA:

Aprobar el Plan Estratégico para la normalización del uso del euskera en el Ayuntamiento de Azpeitia para la gestión y puesta en marcha del uso del euskera dentro VII periodo de planificación de las entidades del sector público vasco.

El acuerdo adoptado será comunicado a la Dirección de Normalización Lingüística de las Administraciones Públicas, y del mismo modo, el propio Plan se publicará en la página web del Ayuntamiento y se comunicará a todo el personal municipal, especificando los criterios de formación correspondientes. Esta función recaerá en el servicio de euskera.

Y para que así conste, expido la presente certificación con el visto bueno del Alcaldesa-Presidenta, en Azpeitia, a veinti cinco de septiembre de dos mil veinticuatro.

V.B.
LA ALCALDESA,

SINA5e72b8ad-db78-450a-90da-0a75875c54a1

# Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| | |
|---|---|
| **Titulua / Título:** | euskara normalizatzeko plana |
| **CSV/EKS:** | SINA5e72b8ad-db78-450a-90da-0a75875c54a1 |

**Digitalki sinatua:**

Azpeitiko Udala

**MARIA OLATZ EIZAGUIRRE ORBEGOZO**
**Secretaria**
**Data:** 2024/09/25 14:57:58

Sinatzailea 2 / Firmante 2: 72471832M NAGORE ALCORTA (R: P2001900F)
Data / Fecha: 2024/09/25 14:59:01